

ANIMALIAK EZAGUTZEN

BASOKO ANIMALIAK



HONTZA



OREINA



HARTZA



URTXINTXA



OKILA



ANIMALIAK EZAGUTZEN

HONTZA



KAIXO, HONTZA NAIZ.

Hegaztia naiz, hegan egiten duena. Arrautza batetik sortu nintzen, zazpi anai-arrebekin batera. Nire ama hilabete bat eman zuen arrautzak berotzen gu oskolatik atera baino lehen. Gure habia zuhaitz lehor baten zuloan zegoen. Sei aste bete nituenean, habia utzi nuen. Gautxoria naiz. Hau da, nahiago dut gauzez ibiltzea. Gaua da gehien bat janari bila ateratzen naizenean.



IKUSMENA ETA ENTZUMENA

Ezin ditudanez begiak mugitu, burua alde batetik bestera mugitzen dut nire inguruan dauden gauzak ikusteko. Belarriak diruditen lumak ditut buruan. Baina ez dira belarriak. Entzuteko, begien ondoan ditudan bi zulo txo erabiltzen ditut. Begi borobil handiak ditut. Nireak horiak dira eta badira beste kolore batzuetakoak dituztenak ere.



HONTZA MUNDUAN

Munduko kontinente guztietan aurkituko gaituzu, Antartikan izan ezik. Euskal Herrian, adibidez, gutako hiru familia bizi gara. Horien artean ni baino txikiagoak diren mozoloak, ikusezinak diren zatak edo hontz zuriak, elizetako kanpandorreetan auki ditzakegunak. Mundu osoan esanahi ezberdinak eman dizkidate. Euskal Herrian adibidez, adimen gutxiko animalia bezala irudikatu naute. Antzinako Grezian jakinduria irudikatzen nuen. Amerikako herri batzuetan berriz, zorte txarreko zat hartzen naute.

Eguzkia badoa, zuloa uzteko unea. Agur!

AZKEN GALDERAK

Ikusi duzu inoz hontzarik? Zoritxarra, jakituria, tolesgabetasuna, hainbat esanahi, baina... Zer esanahi emango zenioke zuk hontzari?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

OREINA



KAIXO, OREINA NAIZ.

Animalia ugaztuna naiz, basoetan eta landetan modu basatian bizi naizena. Jaio nintzenean ile gorrixka nuen. Hazi ahala, nire ilea marroia bilakatu zen, sabela eta ipurdi inguruan izan ezik, han zuria baitut. Lau hanka luze eta fin ditut, gorputz handia eta buru txikia. Arrak gure adar zoragarriengatik ezagunak gara mundu osoan. Urtean behin, adarrak guztiz aldatzen ditut.

ELIKADURA ETA BIZI-EREMUA

Gure jatorria Asian izan bazen ere, une honetan munduko hainbat lurredeetan bizi gara. Espezie gehienak ipar hemisferioan bizi gara: Europan, Asian, Ipar Afrikan eta Ipar Amerikan alegia. Belarjalea naiz, hostoak jatea pila gustatzen zait. Emeek talde handiak osatzen dituzte haien umeekin batera. Arrek, aldiz, talde txikiak nahiago ditugu, askotan bakartiak ere gara.



AHAIDEAK

Ahaide asko ditut munduan zehar. Ezagunak dira altzea (bere adar handiekin), uapitia (oreinarekin antz handia duena, baina tamaina handiagoa duena), karibua (elur-oreina ere deritzona) edo huemula (edo Hego Andeetako oreina).

Beno ba, basoan paseotxo egingo dut orain. Agur.

AZKEN GALDERAK


Orein bat ikusi al duzu inoz? Non?
Eta bazenekin oreinak hostoak jatea gustokoa duela?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

HARTZA



KAIXO, HARTZA NAIZ.

Animalia ugaztuna naiz, hau da, amaren tripan hazi nintzen jaio aurretik. Jaio ondorengo lehen hilabeteak amarekin igaro nituen esneaz elikatzen. Gorputz handia dut, lau hanka sendo eta isats laburra. Ile luzea eta lodia dut. Nirea marroia da, baina badira zuriak direnak, baita beltzak ere. Buruan mutur luzea eta belarri biribildu txikiak ditut. Bost atzapar ditut hanka bakoitzean. Tamaina handiko animalia naiz, txakur handiena baino handiagoa. Eta bakartia, alegia, ez naiz talde handietan bizi.

ELIKADURA, GAITASUNAK ETA BIZI-EREMUA

Ni orojalea naiz, haragia zein barazkiak edo frutak jaten ditut. Baina hartz guztiak ez gara orojaleak. Hartz polarra haragijalea da eta nire lagun Panda handiak banbu hostok jaten ditu batez ere. Gorpuzkera astuna dut eta martxa baldarra. Hala ere, korrikalari gaitua naiz; eskalatzailea eta igerilari ausarta. Nire familian barne zortzi espezie daude. Eta gutxi bagara ere, hainbat leku ezberdinetan auki gaitzakezu. Ipar poloan hartz polarra bizi da. Ipar Amerikan, grizzly hartz. Txinan panda handiak zein gorriak bizi dira eta European hartz arreak dira, besteak beste. Hauetako leku batzuetan desagertzeko arriskuan gaude.



IRAGANA ETA ORAINA

Antzinako Euskal Herriko lurraldeetan hiru hartz familia bizi izan ziren, gutxienez. Bere aztarnak hainbat leizetan aurkitu izan dira. Ekaingoan antzinako hartzen marrazki batzuk ikusi daitezke ere. Gaur egun, berriz, gertuen bizi diren hartzak pirineoko mendietan daude. Neguan gordeleku bat bilatzen dut eta bertan ematen ditut ehun egun lo, hibernazio-aldi luze batean. Baina gaur eguzkia da zeruan eta lehen sagarrondo zoragarri bat ikusi dut bidean.

Beraz, banoa janari bila. Agur.

AZKEN GALDERAK

Bazenekien Euskal Herrian hartzak bizi izan zirela?
Eta zein da gehien gustatzen zaizun hartz mota? Zergatik?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

URTXINTXA



KAIXO, URTXINTXA NAIZ.

Katagorria ere deitu naiteke. Ugaztun txikia naiz. Lau hanka motz ditut, buztan luze iletsua eta hortz zorrotzak. Zuhaitzetan bizi naiz. Han eraiki nuen nire zuloa, bertan bizitzeko. Beraz nire bizi-eremua basoa da. Lurralde epelak gustatzen zaizkit. Azkarra naiz. Zuhaitzetan lasai ibiltzea dut gustokoa eta gutxitan beheratzen naiz lurrera. Adar batetik bestera salto eginez mugitzen naiz. Ez dago ni baino trebeagorik zuhaitz artean mugitzen. Adarren artean hegan egiteko gai diren senideak ditut. Igeri egiteko gai naiz, isatsa lema gisa erabiliz norabidea aldatzeko.

ANIMALIA KARRASKARIA

Animalia karraskaria naiz, hau da, hortz ebakor luze pare bat dut, kurbatuak eta etengabe hazten direnak. Horiekin elikagaiak marruskatzen ditut, beheko baraila aurretik atzera eta atzetik aurrera mugituz.

Sagua, kastorea edo marmota dira ezagunak diren beste karraskariak.



ELIKATZE ETA BABES-OHITURAK

Intxaurrak, ezkurak eta haziak jaten ditut. Gutako batzuk txorien arrautzak edo intsektuak ere jaten dituzte. Ez dut hibernatzen. Neguan, zuloan gordetako janariaz elikatzen naiz. Etsai bat edo harrapakari bat ikustean, isatsa astintzen dut eta zarata ikaragarriak egiten ditut gainerako senideak ohartarazteko.

Beno ba, zuloa apaitzera noa orain. Agur.

AZKEN GALDERAK

Urtxintxari bezala, gustatzen al zaizkizu fruitu lehorrak? Eta erreza ez bada ere, ikusi al duzu inoz basoan urtxintxa bat enborretik jaisten edo igotzen?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

OKILA

KAIXO, OKILA NAIZ.



Basoan bizi naizen txoria naiz. Hegaztia naizenez, amak jarritako arrautz batetik jaio nintzen, beste hiru anai-arrebekin batera. Gure kabia aitatzok egin zuen zuhaitz baten zuloan. Egunez amak zaintzen zituen arrautzak eta gaez aitak. Jaio eta hiru aste ondoren hegan egiten ikasi nuen, horrela kabia uzteko prest nengoen. Intsektujalea naiz. Zuhaitzen enborretan bizi diren xixare eta intsektu txikiak jaten ditut. Horretarako moko luze eta sendoa dut. Horri esker zura zulatu eta puskatzeko gai naiz. Ezaguna naiz mundu osoan nire zulatzeko abiadura azkarrarengatik. Segundu batean hogeik mokokada baino gehiago emanten baititut. Enborren aurka emanten ditudan mokokaden soinuak basoan edatzen dira eta erraz da gutako bat gertu dagoen jakitea.

NIRE TAMAINA ETA ITXURA

Ni hegoi zentimentro neurtzen ditut, ez naiz ba oso okil handia, ni baino handiagoak badira, hirurogei zentimetrotara ailegatzen direnak. Beraz, gutako batzuk, nahiko txikiak gara, beste batzuk berrik, taimana ertainakoak. Hanka laburrak eta hatzamar luze indartsuak ditut. Izan ere denbora gehiena zuhaitz-enborretan gora eta behera ematen baitut ehizaki bila. Gure lumajea berde distiratsua, morea eta laranja da batez ere, nahiz eta okil txiki askok hori eta arrosa koloreak izaten dituzten ere. Espezie askok alde gorriak eta beixak dituzte buruan eta sabelean.



FAMILIA, BIZI-EREMUA ETA IZENAK

Nire familia handia da, 218 espezie dituenak. Banaketa zabala dugu, Australian, Madagaskarren eta Ipar eta Hego poloan izan ezik, munduko lurralde guztietan bizi gara. Gutako batzuk leku berdinean bizi gara bizitza osoa, beste batzuk berriz, neguan kabia utzi eta lurralde beroagoen bila joaten dira. Euskal Herrian gutako zazpi espezie bizi gara, horien artean: Okil handia, Okil berdea eta Okil txikia gara arruntenak. Hemengo gizakiek izen ezberdinak eman dizkirate: Okilo, Tokil, Kokil edo Ükhül, adibidez. Beno ba, intsetuak bilatzen jarraituko dut, agur!



AZKEN GALDERAK

Entzun duzu noizbait basoan okil baten soinu bereizgarria? Eta zein koloretako txoriak ikusi dituzu zuk? Bele beltzak? Txolarre marroiak? Agian enara urdinak?

Hurrengora arte, agur.





ANIMALIAK EZAGUTZEN
BASOKO ANIMALIAK

GALDERAK

Konta Kontari

ANIMALIAK EZAGUTZEN

HONTZA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

- 1.UGAZTUNA
- 2.NARRASTARIA
- 3.HEGAZTIA
- 4.INTSEKTUA

B) ZEIN DA GEZURRA?

- 1.AMA HILABETE BAT EMAN ZUEN ARRAUTZAK BEROTZEN
- 2.ZAZPI ANAI-ARREBEKIN BATERA JAIO NINTZEN
- 3.GURE HABIA ZUHAITZ LEHOR BATEN ZULOAN ZEGOEN
- 4.HAMAR ASTE BETE NITUENEAN, HABIA UTZI NUEN

C) NOIZ JOAN OHI NAIZ JANARIAREN BILA?

- 1.GOIZEAN
- 2.EGUERDIAN
- 3.ARRATSALDEAN
- 4.GAUJEAN

D) NIRE IKUSMENA ETA ENTZUMENARI DAGOKIONEZ...

- 1.IKUSTEKO, BEGIAK MUGITZEN DITUT ALDE BATERA ETA BESTERA
- 2.ENTZUTEKO, BEGIEN ONDOAN DITUDAN BI ZULOTXO ERABILTZEN DITUT
- 3.BEGI BOROBIL TXIKIAK DITUT
- 4.BELARRI LUZE LUMADUNAK DITUT

E) NON BIZI GARA?

- 1.EUROPAN ETA ASIAN
- 2.ANTARTIKAN
- 3.KONTINENTE GUZTIETAN, ANTARTIKAN IZAN EZIK
- 4.AMERIKAN ETA EUROPAN

F) ZER ESANAHI EMAN DIDATE EUSKAL HERRIAN?

- 1.ADIMEN GUTXIKO ANIMALIA BEZALA IRUDIKATU NAUTE
- 2.JAKINDURIA IRUDIKATZEN DUDALA USTE DUTE
- 3.ZORTE TXARREKOTZAT HARTZEN NAUTE
- 4.TOLESGABETASUNA IRUDIKATZEN DUT

ANIMALIAK EZAGUTZEN

OREINA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. UGAZTUNA
2. NARRASTARIA
3. HEGAZTIA
4. INTSEKTUA

B) NON BIZI NAIZ?

1. OIHANETAN ETA BASOETAN
2. BASOETAN ETA LANDETAN
3. BASERRIETAN ETA LANDETAN
4. BASAMORTUETAN ETA SABANETAN

C) ZEIN KOLORETAKOA DA NIRE ILEA?

1. JAIO NINTZENEAN ILE HORIXKA NUEN
2. HAZI AHALA, NIRE ILEA MARROIA BILAKATU ZEN
3. SABELA ETA IPURDI INGURUAN BELTZA DUT
4. URTEAN BEHIN GUZTIZ ALDATZEN ZAIT

D) NONDIK ZABALDU GARA ESPEZIE GEHIENAK?

1. EUROPATIK ETA ASIATIK BAKARRIK
2. AUSTRALIA ETA HEGO AMERIKATIK
3. IPAR HEMISFERIOKO LURRALE GUZTIETIK
4. AFRIKAKO HEGOALDETIK

E) ELIKADURARI DAGOKIONEZ, ZEIN ANIMALIA MOTA NAIZ?


1. BELARJALEA
2. HARAGIJALEA
3. INTSEKTUJALEA
4. OROJALEA

F) ESAN GEZURRA ALA EGIA DIREN:

1. ALTZEA NIRE AHAIDEA DA
2. GORPUTZ TXIKIA ETA BURU HANDIA DUT
3. ARRAK GURE ADAR ZORAGARRIENGATIK EZAGUNAK GARA MUNDU OSOAN
4. EMEEK TALDE TXIKIAK OSATZEN DITUZTE HAIEN UMEEKIN BATERA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

HARTZA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. UGAZTUNA
2. NARRASTARIA
3. HEGAZTIA
4. INTSEKTUA

B) NOLAKOA DA NIRE ITXURA?

1. ILE MOTZA ETA FINA DUT
2. TAMAINA ERTAINEKO ANIMALIA NAIZ
3. BELARRI BIRIBILDU HANDIAK DITUT
4. ISATS LABURRA DUT

C) NIRE ELIKADURARI DAGOKIONEZ...

1. HARTZ GUZTIAK GARA OROJALEAK
2. HARTZ GUZTIAK GARA BELARJALEAK
3. HARTZ GUZTIAK GARA HARAGIJALEAK
4. BADIRA HARTZ OROJALEAK, HARAGIJALEAK ETA BELARJALEAK

D) NON BIZI DA HARTZ MOTA BAKOITZA? JARRI DAGOKION ZENBAKIA

- | | |
|-------------------|---------------|
| 1- PANDA HANDIA | IPAR AMERIKAN |
| 2- GRIZZLY HARTZA | IPAR POLOAN |
| 3- HARTZ ARREA | EUROPAN |
| 4- HARTZ POLARRA | TXINAN |

E) NIRE IRAGANARI ETA ORAINARI DAGOKIONEZ...

1. GAUR EGUN HIRU HARTZ FAMILIA BIZI DIRA EUSKAL HERRIAN
2. HAINBAT LEIZETAN ANTZINEKO HARTZEN AZTARNAK AURKITU DIRA
3. ANTZINA, HARTZ HURBILENAK PIRINIOETAN ZEUDEN
4. GAUR EGUN EUROPAN EZ DAGO HARTZIK

F) ZEIN DA GEZURRA?

1. LEHEN HILABETEA AMAREKIN IGARO NITUEN ESNEAZ ELIKATZEN
2. GORPUZKERA ASTUNA DUT
3. ANIMALIA TALDEKOIA NAIZ
4. IGELARI AUSARTA NAIZ

ANIMALIAK EZAGUTZEN

URTXINTXA



A) ZEIN TAMAINAKO UGAZTUNA NAIZ?

1. TXIKIA
2. ERTAINA
3. HANDIA
4. ERRALDOIA

B) NON EGITEN DUT NIRE ZULOA?

1. HARRIEN ARTEAN
2. LURREAN
3. ZUHAITZETAN
4. BELARREN ARTEAN KABIA ERAIKITZEN DUT

C) ZEIN UGAZTUN MOTA NAIZ?

1. FELIDOA
2. KANIDOA
3. HAUSNARKARIA
4. KARRASKARIA

D) ZEIN DA GEZURRA?

1. LURRALDE BEROAK GUSTATZEN ZAIZKIT
2. IGERI EGITEKO GAI NAIZ
3. ADAR BATETIK BESTERA SALTO EGINEZ MUGITZEN NAIZ
4. AZKARRA NAIZ

E) ZER JATEN DUT?

1. INTSEKTU ETA ARRAIN TXIKIAK
2. HOSTOAK ETA LOREAK
3. HAZIAK ETA FRUITU LEHORRAK
4. ARRAUTZAK ETA SUGANDILAK

F) ETSAI BAT EDO HARRAPAKARI BAT IKUSTEAN...

1. ISIL-ISIL GERATZEN NAIZ INOK EZ IKUSTEKO
2. ZARATAK EGITEN DITUT SENIDEAK OHARTARAZTEKO
3. HOSTO ARTEAN KAMUFLATZEN NAIZ
4. HILARENA EGITEN DUT

ANIMALIAK EZAGUTZEN

OKILA



A) ZEIN ANIMALIA MOTA NAIZ?

1. ARRAINA
2. HEGAZTIA
3. UGAZTUNA
4. NARRASTARIA

B) ZEIN DA GEZURRA?

1. KABIAN BESTE HIRU ANAI-ARREBEKIN BATERA BIZI NINTZEN
2. KABIA AITATXOK EGIN ZUEN ZUHAITZ BATEN ZULOAN
3. EGUNEZ AMAK ZAINTZEN ZITUEN ARRAUTZAK
4. JAIO ETA HAMAR ASTE ONDOREN HEGAN EGITEN IKASI NUEN

C) NON BIZI GARA?

1. AUSTRALIAN ETA MADAGASKARREN
2. HEGO HEMISFERIOAN, AUSTRALIAN ETA MADAGASKARREN IZAN EZIK
3. MUNDU OSOAN, MADAGASKARRREN, AUSTRALIAAN, IPAR ETA HEGO POLOAN IZAN EZIK
4. MUNDU OSOAN

D) ZEIN TAMAINATAKOAK IZAN GAITEZKE?

1. BOST ETA HAMAR ZENTIMETRO ARTEKOAK
2. HOGEI ETA HIRUROGEI ZENTIMETRO ARTEKOAK
3. LAUROGEI ETA EHUN ZENTIMETRO ARTEKOAK
4. EHUN ZENTIMETRO BAINO HANDIAGOAK

E) ELIKADURARI DAGOKIONEZ, ZEIN ANIMALIA MOTA NAIZ?

1. BELARJALEA
2. INTSEKTUJALEA
3. HARAGIJALEA
4. OROJALEA

F) ZEIN DA GEZURRA?

1. HANKA LUZEAK ETA HATZAMAR MOTZ LODIAK DITUT
2. MOKO LUZE ETA SENDOA DUT
3. DENBORA GEHIENA ZUHAITZ-ENBORRETAN GORA ETA BEHERA EMATEN DUT
4. EUSKAL HERRIAN GUTAKO ZAZPI ESPEZIE BIZI GARA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

BASOKO ANIMALIAK

ERANTZUNAK

HONTZA

A) 3 B) 4 C) 4 D) 2 E) 3 F) 1

OREINA

A) 1 B) 2 C) 2 D) 3 E) 1 F) E/G/E/G

HARTZA

A) 1 B) 4 C) 4 D) 2,4,3,1 E) 2 F) 3

URTXINTXA

A) 1 B) 3 C) 4 D) 1 E) 3 F) 2

OKILA

A) 2 B) 4 C) 3 D) 2 E) 2 F) 1

BASOKO ANIMALIAK



MUNDUKO ANINMALIEN BILDUMA

<https://youtu.be/Mk4kDCgZhnl>



HONTZA

<https://youtu.be/ZDK3RSbVW98>

OREINA

<https://youtu.be/pf2LeZ7mer0>



HARTZA

https://youtu.be/Cnm_sngVow

URTXINTXA

<https://youtu.be/g1tH2sPHadw>



OKILA

<https://youtu.be/FugaV-4ClbY>

Konta Kontari